

Fakultateak parte hartuko du Euskal Herriko unibertsitatearteko lehen kongresu kooperatiboaren antolaketan

2015/09/28

Eredu kooperatiboa egungo erronken aurrean lemapean, Euskal Herriko unibertsitatearteko lehen kongresu kooperatiboa egingo dute urriaren 15ean eta 16an Donostian. Jardunaldien antolaketan parte hartu dute EAEko hiru unibertsitateek: Deustuko Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, hain zuzen ere, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki lankidetzaren ikertegiak eta Enpresagintza fakultateko MIK ikerketa taldeak. Lan-saio guztiak egingo dira Donostian, EHUko Calos Santamaria zentroan, eta urriaren 13a arte dago aukera izena emateko. Sarrera doakoa izango da.

Urriaren 15eko 09:30etan egingo den irekiera ekitaldian parte hartuko dute Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuak, Iñaki Goirizelaia EHUko errektoreak, Jose M. Guibert Deustuko Unibertsitateko errektoreak, Bixente Atxa MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektoreak eta Aitor Bengoa EHUko Gezki Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko ordezkariak.

Bi egunean zehar, hiru hitzaldi emango dira, hala nola Mario Rodriganek, Joseba Azkarragak eta Gemma Fajardok emandakoak, eta lau mahai-inguru eskainiko dira. Honako gaiak jorratuko dituzte mahai-inguru horietan:

1. Gizarte eraldaketa eta parte hartzea Mondragon taldean. Potentzialak eta erronkak.
2. Euskal kooperatibismoaren sustapena politika publikoetan.
3. Berrikuntza eta kooperatibismoa.
4. Interkooperazio kooperatiboa nazioartean, ikuspegi enpresarial bat.

Hizlarien artean, MONDRAGON UNIBERTSITATEko hurrengo ordezkariak hartuko dute parte kongresuan: Saio Arando MIKeko Pertsonak lankidetzan ezagutza arloko koordinatzaileak, Aitzol Loioa Lanki lankidetzaren ikertegiko irakasle eta ikerlariak eta Eneritz Pagaldai Lanki lankidetzaren ikertegiko zuzendariak.

Informazio gehiagorako:

- **"Eredu kooperatiboa egungo erronken aurrean" kongresua:** [egitarau osoa PDF formatuan.](#)



Unibertsitatearteko lehen kongresua urriaren 15ean eta 16an egingo da.